

# Salud Mental con perspectiva de género II. Claves feministas para el abordaje de la violencia sexual



Ira. 13 - Ira. 14 2022

**Kod. O19-22**

**Mod.:**

Online zuzenean Aurrez aurrekoan

**Edizioa**

2022

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Ira. 13 - Ira. 14 2022

**Kokalekua**

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

**Hizkuntzak**

Gaztelera

**Balio akademikoa**

20 ordu

**Antolakuntza Batzordea**

Fundación  
**BBVA**



ZENTZIA: UNIBERTSITATE ETA  
BERRIKUNIZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CIENCIA,  
UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN



Diputación Foral de Gipuzkoa

## Azalpena

Sexu indarkeriak, bere forma ugari eta askotarikoetan, emakumeen osasun mentalari eta ongizate psikikoari eragiten die. Psikologia, psikiatria eta gizarte esku hartzearen arloetako profesionalek zeregin garrantzitsua betetzen dute, emakumeek jasandako indarkeriak hautemateko eta identifikatzeko garaian, baita horiekin amaitzeko ere. Prestatzeko erantzukizuna dugu, gure esku hartze profesionalen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko. Hortik sortzen da, hain zuzen, sexu indarkeria maila psikoterapeutiko eta asistentzialean lantzeko modua sakon aztertzeko beharra, orientazio feminista batetik.

Ikuspegi feministak ikusteko, testuinguruan jartzeko eta birkokatzeko gaitasuna ematen dio jarduera profesionalari.

Emakumeek emakume izateagatik jasaten dituzten opresioak eta indarkeriak ikusarazi behar dira, tartean sexu indarkeria. Indarkeria horrek askotariko modalitateak hartzen ditu, eta haien ezagutza handiagoa edo apalagoa izanda ere, guztiak eragiten dute emakumeen ongizate psikologikoan, portaeran eta erabakietan.

Feminismoak sexu indarkeria testuinguruan kokatzeko duen moduak aukera bat ematen digu gizarte antolatzaileak eta horiek gizon nahiz emakumeen sexualitatean duten eragina ezagutzeko, eta konturatzeko nola horien bidez interpretatzen eta, askotan, «validatzen» diren emakumeen aurkako sexu indarkeriak.

Eta, amaitzeko, feminismoak tresna terapeutikoak eta asistentzialak ematen ditu, sexu indarkeriaren erantzukizunak bideratzeko eta birkokatzeko, biktimei erruaren eta lotsaren zama kenduta. Esperientzia sendatzaile eta erreparatzaile bat sortzen laguntzen du, maila indibidualean ez ezik, gizarte mailan ere.

Premisa horietatik abiatuta, Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialaren Berdintasun Batzordetik azpimarratu nahi dugu orain inoiz ez bezala oso garrantzitsua dela gure esku hartze profesionallean genero ikuspegia txertatzea, indarkeria egoeretatik ateratzeko gure lanetan abian jartzen ditugun mekanismoak eraginkorrik izan daitezen. Eta arreta guztia sexu indarkerian jartzeko garaia iritsi da.

Psikologiaren arloko profesionalak aldaketa eragile garrantzitsuak gara indarkeriaren prebentzioan, identifikazioan, detekzioan eta lanketan, eta ezin gara egoera horretatik kanpo geratu.

Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialaren Berdintasun Batzordearen eta Uda Ikastaroak Fundazioaren ekarpen gisa, implikatu behar dugu jardunbide profesionalen etengabeko gogoeta eta azterketarako espazioak errazteko, genero ikuspegiaren implementazioa, asmo hutsa baino gehiago, errealtitate bat izan dadin.

Hori dela eta, gogoeta topaketa bat proposatzen dugu, non, genero ikuspegi batetik abiatuta, berdintasunarekin eta indarkeriaren amaierarekin konprometitutako jardunbide profesionalak eraikiko ditugun.

Azken batean, egiturazko indarkeria ulertzeko eta identifikatzeko modu berri gisa ikuspegi eta eskaera feministea beren jardunbide profesionallean txertatzea lortu duten psikologia, psikiatria, gizarte langintza eta gizarte hezkuntzaren arloko profesionalak gonbidatzen ditugu, indarkeria horrekin amaitzeko helburuarekin. Era berean, gonbidapena helarazten diegu ere eraginkortasuna areagotuz eta etika eta berdintasun parametroetan kokatuz beren lan jarduna hobetu nahi duten diziplina horietako profesional guztiei.

## Helburuak

Emakume eta nesken aurkako askotariko sexu indarkeriak ikustaraztea.

- Sexu indarkeria mota ugari eta askotarikoak deskribatzea.
- Gogoeta egitea zigor erantzunaren eta sexu indarkeriaren inpaktu psikikoaren arteko desberdintasunari buruz eta hori espazio terapeutiko-asistentzial batean lantzeko moduari buruz.

Emakumeen eta nesken aurkako sexu indarkeria testuinguruan kokatzea, haren modalitate guztietan.

- Sexu indarkeria eragiten duten elementu estrukturalak eta kulturalak identifikatzen ikastea, eta harreman terapeutiko baten testuinguruan horiek izendatzen jakitea.
- Emakumeen eta gizonen sexualitatea eraikitzeko erabiltzen diren eta sexu indarkeria gertatzea ahalbidetzen duten gizarte antolatzaileak ezagutzea.

- Gizonengan eta haien ongizate psikofisikoan eragiten duten genero aginduak ezagutzea. Horiek lantzeko ildoak.

Sexu indarkeria birkokatzea.

- Sexu indarkeria baldintzatzen duten genero aginduak zehaztea, eta harreman terapeutiko asistentzial batean barneratzen jakitea.
- Sexu indarkeriak biktimen bizitzan eta psikologian duen inpaktua ezagutzea.
- Sexu indarkeriaren biktimei eta haien beharrei ahotsa ematea. Gainditzeko prozesuak ezagutzea eta lan arloan horiek ezartzen jakitea.
- Traumaren papera ezagutzea; bereziki, sexu indarkeriatik eratorritako harreman trauma, psikopatologian.
- Sexu indarkeria esku hartzte terapeutiko eta asistentzialen ikuspegitik lantzeko gakoak ematea. Jardunbide egokiak
- Jarduera profesionalak aztertzea, eta ikustea zer neurritan errazten edo oztopatzetan duten sexu indarkeriaren ondorioak prebenitezko, lantzeko eta gainditzeko aukerak. Beste harreman mota batzuei eta haien eraginkortasunari buruzko gogoeta egitea.
- Zaintza integratzea, akonpainamendu terapeutikoan eta laguntzako harreman profesionaletan.
- Genero ikuspegiaren eta jarduera feministen araberako azterketa baten izaera eta beharra baloratzea.

## **Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak**



# Programa

## 2022-09-13

08:45 - 09:00	Registro
09:00 - 09:15	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena  <b>Vicenta Alonso De la Cruz</b>   Colegio Oficial de Psicología Bizkaia - Coordinadora de la Comisión de Igualdad
09:15 - 09:25	Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena:  <b>Eva Ferreira</b>   UPV/EHU - Rectora <b>Izaskun Landaide Larizgoitia</b>   Emakunde - Directora
09:25 - 10:30	"Raíces estructurales de la violencia sexual"  <b>Barbara Tardón Recio</b>   Ministerio de Igualdad - Asesora
10:30 - 11:45	"Buentrato como proyecto de vida"  <b>Josefina Sanz Ramón</b>   Instituto Terapia Reencuentro - Psicoterapeuta, pedagoga y sexóloga
11:45 - 12:15	Atsedena
12:45 - 14:15	Mahai ingurua: "Tipos de violencia sexual"  <b>Marta Dolado Galíndez</b>   Auzolan - Jurista del Módulo Psicosocial <b>Ana Burgos García</b>   Observatorio Noctambulas - Antropóloga y periodista
14:15 - 14:30	Sintesia

## 2022-09-14

09:15 - 10:30	"Papel del trauma derivado de la violencia sexual en la psicopatología"  <b>Norma Vázquez Garcçoa</b>   Psicóloga y Fundadora SORTZEN ( <b>Zoom bidez parte hartuko du</b> )
10:30 - 11:30	"Testimonio superviviente de violencia sexual"  <b>Marta Suria</b>   Ediciones Círculo de Tiza - Escritora
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:15	"Violencia sexual en el espacio terapéutico-asistencial"  <b>Mireia Darder Gimenez</b>   Institut Gestalt - Psicóloga
13:15 - 13:30	"Amaiera instituzionala / Clausura institucional"  <b>Begoña Rueda Ruiz</b>   Colegio Oficial de Psicología Bizkaia - Decana



## Zuzendaritza



### **Vicenta Alonso De la Cruz**

Gobierno Vasco, Colegio Oficial de Psicología Bizkaia, Coordinadora de la Comisión de Igualdad

---

Vicenta Alonso de la Cruz. Instituzio penitentziarioetako goi-mailako teknikarien psikologoa, bere funtzioak psikologo gisa garatu ditu arreta klinikoarekin programa psikoterapeutiko ezberdinetan. 2003az geroztik, Donostiako eta Bilboko espelxeetan tratamendu zuzendariordean lan egiten du. Psikologia klinikoan masterra eta emakumeen aurkako indarkerian masterra. Psikologo kliniko gisa egiten duen lanaren barruan, 2001etik gaur egunera arte, genero erasotzaileekin psikoterapia espezifika garatzen du, besteak beste. Bizkaiko psikologia eskola ofizialeko berdintasun batzordeko koordinatzailea da.

## **Irakasleak**



### **Ana Burgos García**

---

Licenciada en Antropología Social y Cultural por la Universidad Complutense de Madrid y en Periodismo por la Universidad de Sevilla. Cuenta un Máster de Género y Desarrollo por el Instituto Complutense de Estudios Internacionales [cuya tesis sobre género, sexualidad y prisiones desarrolló en Bogotá, en la entidad Colombia Diversa], un posgrado en Relaciones de Género por la Universidad Nacional Autónoma de México y amplia formación complementaria en violencias de género, sexualidad, educación, drogas y adicciones. Ha trabajado en áreas de género y derechos humanos de diferentes organizaciones, tanto públicas como privadas y, especialmente, en el tercer sector, desarrollando tareas de investigación, formación, elaboración de materiales y campañas, dinamización comunitaria o comunicación. Actualmente trabaja en la Fundación Salud y Comunidad coordinando el Proyecto Malva, para la incorporación de la perspectiva de género en el ámbito de drogas, y el Observatorio Noctámbul@s, para la prevención de violencias sexuales en contextos de ocio nocturno y consumo de sustancias. También forma parte del grupo motor de la Red española de Género, Drogas y Adicciones y de la Comisión de Adicciones y Género de UNAD.



### **Mireia Darder Gimenez**

---

Dra. en Psicología y psicóloga especialista en Psicología Clínica. Terapeuta Gestalt. Terapeuta Corporal. Escritora. Socia Fundadora del Institut Gestalt. Estudió Psicología en la Universidad Autónoma de Barcelona, especializándose en Psicología Social. Se interesó en temas de abasto social y trabajó durante doce años en el mundo de la animación socio-cultural para el Ayuntamiento de Barcelona. Como colofón de su trabajo en el ámbito social se doctoró en 2001 con la tesis "Catorze anys de Casals de Joves de l'Ajuntament de Barcelona". Posteriormente obtuvo el título de Psicóloga especialista en psicología clínica. En consonancia con el irrefrenable interés por su autoconocimiento y por la comprensión de los mecanismos psíquicos que impulsaban el comportamiento de los demás, se interesó y se formó en Psicología Humanista en el centro Estel de Barcelona, especialmente en Terapia Gestalt. Fundó el Institut Gestalt (Barcelona) junto con Joan Garriga y Vicens Olivé en 1986. Siguió formándose en diferentes tipos de psicoterapia: PNL, Hipnosis Ericksoniana y en Constelaciones Familiares de la mano de Bert Hellinger. Asimismo se interesó y especializó en el trabajo con los sueños como expresión de lo familiar.



## **Marta Dolado Galíndez**

---

Abokatua (Auzolan Modulu Psikoziala)



## **Begoña Rueda Ruiz**

Colegio Psicología Bizkaia, Decana

---

M<sup>a</sup> Begoña Rueda Ruiz, Psikologiako doktorea. Psikologia Klinikoko psikologo espezialista, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean. Ibilbide profesionalaren lehen etapan desgaitasuna duten pertsonen esparruan (1992-2002) eta gizarte-bazterkeriaren aurrean esku hartzeko eta laneratzeko programetan (2003-2013) lan egin du. 2013az geroztik, osasun-arloko esku-hartze klinikoa eta asistentziala egiten du lan nagusiki, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarearen barruan. Denbora batez (2016-2018) Deusto Psych-eko taldeko kide izan zen, Deustuko Unibertsitateko laguntza psikologikoko zerbitzuan. Bere ibilbide profesionalean zuzeneko arreta proiektuen kudeaketarekin, prestakuntza-jarduerarekin eta ikerketarekin uztartu dut. Graduondoko programako prestakuntzan, etengabeko prestakuntzan eta egoiliarren prestakuntza espezializatuko programan parte hartu du.



## **Barbara Tardón Recio**

---

Doctora en Estudios Interdisciplinares de Género (UAM). Máster Oficial en Derecho Internacional de los Derechos Humanos (UAH). Experta en violencia de género y derechos humanos. Desde hace más de 15 años ha trabajado en organizaciones e instituciones nacionales e internacionales como responsable de área, coordinadora de proyectos y consultora especializada, en las áreas de violencias de género, prostitución e incidencia política. Actualmente trabaja como asesora de la Ministra de Igualdad del Gobierno de España, siendo previamente asesora de la Secretaría de Estado de Igualdad. Desde 2003 ha ejercido como docente y formadora experta en cursos especializados, máster oficiales o posgrados en las temáticas de igualdad de género, violencia de género y derechos humanos, tanto en España, como en Europa y América Latina. Su actividad profesional en los últimos años ha estado centrada en la consultoría e investigación especializada en violencias de género y derechos humanos, trabajando para organizaciones como Amnistía Internacional, Médicos del Mundo, o para instituciones públicas, como la Dirección General de Prevención y Atención frente a la Violencia



### **Norma Vázquez Garcóoa**

---

Ororen gainetik, feminista. Bizitzako 45 urteetan lagun izan duen ikuspegi batetik abiatzen dira beti bere lanbidea keta intereseko gaiak, eta, beraz, jada ez du errerealitaterik ulertzten ikuspegi hori gabe. Prestakuntza psikologoa du, eta konplexuaren terapia erabili du emakumeen aukako indarkeria matxista ulertzeko, alderdi teoriko eta praktikoetan, bai biktimei zein bizirik atera diren emakumeei laguntzeko, bai profesionalei prestakuntza eta beste jarduera eratorri batzuk emateko. Emakumeen aukako indarkeria matxistaren inguruko politika publikoak garatzen ere aritu da azken urteotan.



### **Josefina Sanz Ramón**

---

Psicoterapeuta, Pedagoga y Sexóloga. Creadora de la Terapia de Reencuentro, modelo que integra Psicología, Sexología y Educación para la Salud, con perspectiva de género, clínica y comunitaria. Desde el Instituto Terapia de Reencuentro, donde imparte consulta, forma a través de talleres, cursos y Másters a profesionales de España y Latinoamérica. Fue durante 9 años profesora de Psicología de la Universidad de Valencia. Cofundadora de la Sociedad de Sexología del País Valenciano (1980). Es Presidenta de la Fundación Terapia de Reencuentro, creada en el 2000. Ha trabajado desde los años 70 en grupos de mujeres, grupos mixtos, y desde el año 86 con grupos de hombres. Propone un desarrollo integral de la persona, abordando las problemáticas desde la dimensión personal, relacional y social, que faciliten el autoconocimiento y los cambios necesarios para crear vínculos para la convivencia, que favorezcan relaciones más igualitarias, respetuosas y de buentrato. Sus investigaciones le han llevado a crear métodos terapéuticos que ha expuesto en numerosos congresos y publicaciones, con un lenguaje claro, como puede verse en algunos de sus libros.



### **Marta Suria**

---

## Matrikula prezioak

AURREZ AURRE

2022-09-13 ARTE

Orokorra	80,00 EUR
<a href="#"><u>Matrikula murritzua orokorra</u></a>	68,00 EUR
<a href="#"><u>Matrikula exentzioa</u></a>	56,00 EUR
<a href="#"><u>Osasuna, pertsonekiko konpromisoa</u></a>	20,00 EUR
<a href="#"><u>Gipuzkoa / Bizkaia eta Arabako Psikologoen Elkargo Ofiziala</u></a>	68,00 EUR
<a href="#"><u>OSAKIDETZAKO GONBIDATUAK</u></a>	0 EUR

ONLINE ZUZENEAN

2022-09-13 ARTE

Orokorra	80,00 EUR
<a href="#"><u>Matrikula murritzua orokorra</u></a>	68,00 EUR
<a href="#"><u>Matrikula exentzioa</u></a>	56,00 EUR
<a href="#"><u>Osasuna, pertsonekiko konpromisoa</u></a>	20,00 EUR
<a href="#"><u>Gipuzkoa / Bizkaia eta Arabako Psikologoen Elkargo Ofiziala</u></a>	68,00 EUR
<a href="#"><u>OSAKIDETZAKO GONBIDATUAK</u></a>	0 EUR

# **Kokalekua**

**Bizkaia Aretoa-UPV/EHU**

Abandoibarra etorbidea. 48009- Bilbo

Bizkaia